

**ALTZIBARKO ALT-6 EREMUAN
ETXEBIZITZA TASATUETARA IZEN-EMATEKO ORRIA**

ESKATZAILEAREN DATUAK:		
Izen-abizenak:	NA-IFK	Sexua <input type="checkbox"/> G <input type="checkbox"/> E
Helbidea:	K.P.	Herria
Telefonoa / E-posta	Jakinarazpena jasotzeko modua: <input type="checkbox"/> Posta arrunta <input type="checkbox"/> Telematikoa	
Egoera zibila :		
Ezkongabea <input type="checkbox"/> Ezkondua <input type="checkbox"/>	Dibortziatua <input type="checkbox"/> Banandua <input type="checkbox"/>	Alarguna <input type="checkbox"/> Izatezko bikotea <input type="checkbox"/>
Desgaitasuna:	<input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez	

BIZIKIDETZA-UNITATEA OSATZEN DUTEN KIDEAK:
KOPURUA, zenbat kidek osatzen dute unitatea?

Izen abizenak (titularra izan ezik)	N.A.	Ahaidetasuna (hala badagokio)

4 kide edo gehiagoko unitatea bada, aukeratu zein etxebizitza mota nahi duzun	2 logelako etxebizitza <input type="checkbox"/> 3 logelako etxebizitza <input type="checkbox"/>
--	--

BIZILEKUAREN BALDINTZARI DAGOKIONEZ ZEIN DA ZURE/ ZUEN EGOERA (x batekin adierazi/	
Oiartzungo udalerrian etenik gabe erroldatuta egotea, gutxienez, 2024ko urtarrilaren 1az geroztik	<input type="checkbox"/>
Azken 15 urteetan bost urtez erroldatua egon izana, erreferentzia data 2024ko urtarrilaren 1a izanik	<input type="checkbox"/>
Azken 10 urteetan Oiartzunen, etenik gabe, lan egin izana frogatzea, erreferentzia data 2024ko urtarrilaren 1a izanik.	<input type="checkbox"/>

ETXEBIZITZA BEHARRAREN BALDINTZARI DAGOKIONEZ ZEIN DA ZURE/ ZUEN EGOERA	
Zuk edo bizikidetzaren unitateko kideren batek gaur egun edo azken bi urteetan etxebizitzaren baten jabetza, azalera eskubidea edota bizi arteko gozameneko eskubidea baduzu:	
BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>	
<u>BAI</u> erantzuten bada, beheko atala bete zein egoeratan aurkitzen zareten adieraziz.	
1.- Etxebizitza Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta egotea, eskatzailearen ohiko bizileku iraunkorra da eta ez ditu betetzen indarrean dauden arauak ezarritako gutxieneko bizigarritasun baldintzak . Gutxienez bost urte lehenago eskuratua izan da eta eraikuntza konponbideak onartzen ez dituzten hutsuneak bakarrik hartuko dira kontuan.	<input type="checkbox"/>
2.- Banatzeko edo dibortziazko edota izatezko bikoteak amaitzeko prozesu baten ostean, judizialki beste ezkontidearen familia-helbide gisa esleitua izatea.	<input type="checkbox"/>
3.- Indarreko araudian xedatutako irigarritasun-baldintzak ez betetzea, titularrak 70 urtekoak edo gehiagokoak direnean.	<input type="checkbox"/>
4.- Etxebizitzaren azalera erabilgarria pertsona bakoitzeko 15 metro kuadro baino txikiagoa izatea.	<input type="checkbox"/>
5. Jaraunspen edo dohaintzaren bitartez titulartasunean eskuratutako etxebizitza bat edo batzuk izatea, betiere, titularkidetasun-ehunekoa %50etik beherakoa bada eta haren balioa 75.000 euro baino gutxiagoko bada	<input type="checkbox"/>
6.- Bizikidetzaren unitateko kideren batek ezgaitasun iraunkorra duen pertsona denean, etxebizitza-premia duela ulertuko da, beti ere dokumentuekin honako hau egiaztatzen badu: <ul style="list-style-type: none"> • Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko eraikin batean dagoen etxebizitza izatea baina hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irigarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan jasotako sarbide eta igogailuei buruzko zehaztapenak betetzen ez dituen etxebizitza denean. • Erosi nahi duen etxebizitzak aurreko lerraldian aipatu sarbide eta igogailuei buruzko zehaztapenak betetzea. 	<input type="checkbox"/>

BEHARREZKO AGIRIAK, UDAL HONEK ESKURATUKO DITUENAK:

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Oiarzungo Udalak bitarteko elektronikoen bidez egingo ditu eskaera honetarako beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak, ondoren adierazten diren datu elkarreragingarriak lortzeko, interesduna horren aurka agertu ezean. Horrela balitz, aurka egitearen arrazoia azaldu eta agiriak berak aurkeztu beharko ditu:

- Datu pertsonalak
 - o Identitatea
 - o Biztanle erroldako datuak
- Etxebizitzarik eza:
 - o Titular izango diren guztien ondasun higiezinaren kontsulta Foru Ogasunean
- Diru-sarreraren inguruko datuak:
 - o Errenta aitortpena
 - o Errenta aitortpena egitetik salbuetsitakoak (egoeraren arabera):
 - Jubilatuak edo pentsiodunak oro har, baita lanerako ezintasuneko egoeran edo balioezintasuneko egoeran aurkitzen diren langileak ere: Dagokion ekitaldian pentsioaren edo jasotako diru-prestazioen kontsulta.
 - Langabezi egoeran: langabezian egoteagatik jasotako prestazioen kontsulta.
 - Lan-bizitzaren kontsulta.
 - Gizarte laguntzak jasotzen dituztenak: Diru-sarrerak bermatzeko errentaren kontsulta eta bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren kontsulta.
- Desgaitasun egoera.
 - o Desgaitasun datuen kontsulta Foru Aldundian

Eskatzaileak EZ DIO BAIMENIK ematen Oiarzungo Udalarari sektore publikoko edozein entitatetatik beharrezkoak diren datuak zuzenean jasotzeko, haiekin egiazta dezan eskaera hau aurkezteko baldintza guztiak betetzen direla.

Baimenik ez ematearen arrazoia

ESKATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua arabera, Oiarzungo Udalak ezin baditu agiri horiek elektronikoki bildu, salbuespen gisa, eskatu ahal izango dio interesdunari horiek aurkezteko.

Edonola ere, kasu bakoitzean Administrazioak egokitzen jotzen dituen edozein ikerketa egiteaz gain beharrezkotzat jo dezakeen beste edozein dokumentazio osagarri eskatzeko aukera izango du, eta, agiri horiek ezarritako epean aurkezten ez badira, interesatuak eskaerari uko egiten diola ulertuko da.

Kasuak kasu honakoak aurkeztu beharko dira:

- Bizikidetzaren unitatean seme alabak daudenean:
 - o Familia liburua
- Errolda baldintza betetzen ez bada (Oinarrietako III a) 3. atalaren arabera)
 - o Azken 10 urteetan Oiarzunen, etenik gabe, lan egin izana frogatzeko agiria.
- Etxebizitzarik eza:
 - o Nahiz etxebizitza baten jabe izan, Oinarrietako III b) atalean deskribatzen den egoeraren bat ematen bada, hori egiaztatzeko agiriak.
- Diru-sarrerak egiaztatzeko (Udalak ezin baditu kontsultatu aurreko taulan adierazitako datuen arabera):
 - o Besteren konturako langileak: Dagokion ekitaldiko nominak edo enpresaren ziurtagiriak, indarrean dagoen lan araudiak eskatutako baldintzak beteaz.
 - o Beren konturako langileak: Gizarte Segurantzari egindako urteko kotizazioaren ziurtapena, bertan, kuotak kalkulatzeko erabili izan den urteko oinarria jasoz eta diru-sarreraren aitortpen pertsonala.

DATU BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Arduraduna	Oiartzungo Udala Helbidea: Done Eztebe plaza 1, 20180 Oiartzun (Gipuzkoa) Tlf. 943 490 142 Posta: oiartzun@oiartzun.eus
Helburuak eta zilegitasuna	Herritarren eskaerei arreta emateko dagokien espedienteak kudeatzea. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean oinarritutako eskumenak garatzea
Hartzaileak	Arloan eskumena duten beste administrazioei jakinarazi ahal izango dira datu pertsonalak.
Eskubideak	Interesdunak eskubidea du bere datuetan sartzeko, horiek zuzentzeko eta ezerezteko, eta horien tratamendua mugatzeko edo tratamendu horren aurka jartzeko. Horretarako, idazki bat eta bere nortasuna egiaztatzen duen agiria bidali beharko ditu Udaletxeko helbidera edo dbo-dpd@oiartzun.eus posta elektronikora.
Informazio gehiago	http://www.oiartzun.eus/datu-babesa

Tokia eta eguna	Sinadura